



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko ekainaren 18a

82. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, zeinaren bidez 29. bis artikulua gehitzen baitzaio Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeari. Navarra Suma, Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-A errepidearen gaineko erabakiak baloratzeko lantalde bat eratu dezan. Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari eska diezaion NutriScore nutrizio-etiketatu frontalaren ezarpena geldiaraz dezan, harik eta Europar Batasunak herrialde guztietarako etiketatu harmonizatu eta erkide bat onetsi arte. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da nazioarteko garraioko 7,5 tona baino gehiagoko ibilgailu astunen trafikoa N-121-A errepidetik atera dezan, harik eta errepide hori 2+1 errepide bihurtzeko obrak bukatu arte. Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztu du (8. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez bere babes instituzionala ematen baitio Kooperatiben 2021eko Nazioarteko Egunari. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak irmoki gaitzesten baititu Tenerifen izandako parrizidioa eta azken asteotako emakumeen erailketak, eta biktimen familiekiko eta adiskideekiko elkartasuna adierazten baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordeari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (12. or.).

- Galdera, lurzoru urbanizaezinetan jarduera eolikoak baimentzeari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuaren etorkizuneko estrategia definitzeko egin diren lan-jardunaldiei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, parke eoliko eta forovoltaiko berriak paratzeari dagokionez Landa Garapeneko eta Ingurumene-ko Departamentuak duen protokoloari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, desgaitasuna duten 3tik 6 urtera bitarteko seme-alabak dauzkaten Nafarroako familiei ematen zaien arretari buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Iruñerriko Mankomunitateari COVID-19a dela-eta Estatuak garraio publikorako emandako dirulaguntzari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Barañaingo Auditorioaren funtzionamenduari eta kultur programazioari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren entseguetarako egoitza aldatzeko arrazoiei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, Mayumana taldearen emankizunaren aurretik gertatutako istiluei eta Foruzaingoak izandako esku-hartzei buruzkoa. Galdera erretiratzea (18. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez 29. bis artikulua gehitzen baitzaio Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeari.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Navarra Suma, Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentariaren elkarteak eta Ezkerreko-Ezkerreko talde parlamentario mistoak foru lege proposamen bat aurkeztu dute, zeinaren bidez 29. bis artikulua gehitzen baitzaio Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeari, eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute (10-21/PRO-00012).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeari 29. bis artikulua gehitzeko Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

3. Foru lege proposamen hori irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez 29. bis artikulua gehitzen baitzaio Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeari

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak 26.1. artikuluan xedatzen duenez, "Foru Komunitateko botere publiko eta erakunde guztiek laguntza eman behar diote Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari, lehentasunez eta presaz, haren ikerketa eta ikusketetan".

Foru lege bereko 24.2. artikulua xedatzen duenez, "hasieran eskatutako txostena edo dokumentazioa ez dutela bidaliko edo eskura jarriko esaten badute Administrazio Publikoen zerbitzuko langileek edo haien gainekoek, edo arduragabekiaz jarduten badute, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak uste ahal izanen du bere eginkizunen kontrakoak edo oztopatzeak direla egintza horiek; hori ezagutarazi egingen du berehalakoan, eta Nafarroako Parlamentuarentzat egindako urteko txostenean edo txosten berezian, halakorik bada, kalifikazio hori nabarmendu egingen du".

24.3. artikulua hain gehitzen du: "Gauza bera gertatuko da Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren jarduna eragotzi edo oztopatzen duen edozein jokabiderek".

Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Lege beraren 31.1. artikuluan antzeko baldintzak adierazten dira: "Administrazio Publikoetako zerbitzuko edozein organismok edo pertsonak Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren ikerketei kontra edo oztopo egiteari eusten badiot, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak txosten berezi bat egin dezake horri buruz, urteko txostenean dagokion atalean hori azpimarratzeaz gain".

Lege horretako 31.2. artikulua araberan, "horretaz gain, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak bere ebazpenak ez betetzeari eusten diotenak edo bere jardura oztopatzen dutenak nor diren esan ahalko du, guztiaren berri eman ondoren erantzule den agintari gorenari".

Bestalde, uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak 34.2. artikuluan xedatzen duenez, "behin gomen-dioak egin ondoren, ukitutako agintari administrati-boak bi hilabeteko epe batean neurri egokirik hartzen ez badu ildo horretan, edo Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari ez badio ematen neurri horiek ez hartzeko arrazoiak berri, arartekoak gai horren aurrekariak eta aurrekizutako gomendioak, oharpenak, gogorazpenak edo iradokizunak jakinarazi ahal izanen dizkio ukitutako adminis-trazioaren agintari gorenari. Hala jakatuta ere justifi-kazio egokia lortzen ez badu, gai hori urteko txostenean edo txosten berezian sartuko du, jarre-ra hori izan duten agintarien edo Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen izenen berariazko aipamenarekin, eta betiere arartekoaren iritziz konponbide positiboa izan zezaketen eta konpon-bide hori lortu ez den kasuen artean".

Nafarroako arartekoarekin lankidetzan ez ari-tzeak jarduketak Fiskaltzari helaraztea eragin dezake, Zigor Kodeko 502.2. artikuluan tipifikatu-tako delitua jazo ote den baloratzeko.

Manu horrek ondokoa xedatzen du:

"1. Norbaitzuk, agindeia legez eta ohartarazpe-na eginda jaso dutelarik, agertzen ez badira Gorte Nagusien edo autonomia erkidegoko legebil-tzarraren ikerketa batzordera, orduan, halakoak desobeditze-delitupeko erruztatu gisa zigortuko dira. Erruztatua agintari edo funtzionario publikoa bada, horri enplegu edo kargualdi publikoa etengo zaio, sei hilabetetik bi urte arte.

2. Agintari edo funtzionarioari zigor berberak ezarriko zaizkio, baldin eta Herriaren Defen-tsariaren, Kontu Auzitegiaren edo autonomia erki-degoen organo baliokideen ikerketa oztopatzen badu, nahiz horiek eskatutako txostenak bidal-tzeari uko eginez edo bidaltze hori bidegabe luza-tuz, nahiz horiei trabak jarritz, ikerketa egiteko beharrezkoak diren administrazio-espeditente nahiz agiriak eskuratzeko.

Nafarroako arartekoaren ondoz ondoko urteko txostenek agerian jarri dute, zenbait administrazio publikok ez dutela lankidetzan jarduten herritarren eskubideak administrazio publikoen gehiegikerien eta zabarkeriaren aurrean bermatzen dituen era-kunde horrekin, eta, halaber, lankidetzaz ez hori behin eta berriz gertatzen dela eta gorantz ere egin duela. Batzuetan, administrazio horiek

ordezkatzan dituzten agintariak ez dakite zer eran-tzukizunetan erortzen ari diren; izan ere, haien zerbitzura dauden beste pertsona batzuk dira lege-betebeharra ez betetzearen errudunak.

Erakundeak jardunean daraman urteetan har-tutako esperientziak erakutsi du gaur egun inda-rran dauden neurriak –lankidetzarik ezaren adie-razpena eta urteko txostenetan administrazio horien aipamena egitea– ez direla nahikoak lankidetzaz ezari aurre egiteko. Era berean, age-rian utzi du bide penala ez dela metodo egokia, desproporzionatua delako eta zuzenbidearen azken ratioa delako, organo edo entitate adminis-tratiboek Nafarroako arartekoarekin lankidetzan aritzeko betebeharra behar bezala betetzen ez duten kasuei aurre egiteko.

Horregatik, neurri horien eraginkortasuna txikia izan denez, oso egokitzat jotzen da uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen esparruan neurri eraginkor eta proporzionatu bat ezartzea, alegia, aukera egon dadila Nafarroako arartekoak berak her-tsapen-neurriak ezartzeko zenbateko nahikoa eta egokia duten isun periodikoen bidez, behin eta berriz egindako errekerimenduak gorabehera, eskatutako informazioa edo dokumentazioa bidal-tzen ez duten edo beren ebazpenei erantzuten ez dieten herri-administrazioei, zeinek, hala jakatuz, kaltetu egiten baitute herritarren eskubideak zain-tzeko sortu zen erakunde horrek betetzen duen gainbegiratze-funtzioa.

Artikulu bakarra.

29. bis artikulua gehitzen zaio Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeari, honako testu honekin:

"29. bis artikulua.

Administrazio publiko edo entitate batek ez badu eskatutako informazio edo dokumentazio guztia edo haren zati bat bidaltzen, edo ebazpenei ezarritako epean erantzuten ez badie, Nafarroako arartekoak, hamar eguneko epean azken oharta-razpena egin ondoren, honako neurri hauetako edozein hartu ahal izanen du:

a) Administrazio edo entitate erantzuleei 1.500 euroko hertsapen-isunak jartzea. Isuna hogeit egu-nean behin errepikatu ahal izanen du, harik eta eskatutakoa osorik bete arte.

b) Administrazio edo entitate erantzuleen jarre-ra, eskatutakoa ez betetzearena, argitara ematea web orrian, urteko txostenean edo txosten berezi batean, eta hedabideetan, eta jokabide hori Nafa-rrakoako Parlamentuari jakinaraztea, horren berri izan dezan".

Xedapen gehigarria.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-A erre- pidearen gaineko erabakiak baloratzeko lantalde bat eratu dezan.

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita N-121-A errepedearen gaineko erabakiak baloratzeko lantalde bat eratu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, N-121-A errepedearen gaineko erabakiak baloratzeko lantalde bat eratzeari buruzko honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

N-121-A errepederako trazadurarik egokienari buruz adituek egindako gomendioak eta errepede horri buruz gaur dauzkagun datuak ikusita, konprometituta gaude erabakirik egokienak hartzera.

Ikusita errepede hori 2+1 bide bihurtzeko obraren exekuzioa eta adituen sektoreek 2+2 trazadura baten egokitasunari buruz egindako gomendioak, honako erabaki proposamen hau aurkezten diogu Parlamentu honen Osoko Bilkurari:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio lantalde bat eratu dezan, ebatz dezan abian den proiektua egokia ote den eta 2+2 trazadurako proiektu bihurtzea komeni ote den eta bide horren etorkizuna azter dezan.

- Lantalde horrek honako hauek osatuko dute:

- Nafarroako Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Elkargo Ofizialaren ordezkariak.

- Nafarroako garraio eta logistika elkartearen ordezkariak.

- Lurralde Kohesiorako Departamentuaren ordezkariak.

- Talde parlamentarioen ordezkariak.

- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren ordezkariak.

Nafarroan, 2021eko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen da Espainiako Gobernuari eska diezaion NutriScore nutrizio-etiketatu frontalaren ezarpena geldiaraz dezan, harik eta Europar Batasunak herrialde guztietarako etiketatu harmonizatu eta erkide bat onetsi arte.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Espainiako Gobernuari eska diezaion NutriScore nutrizio-etiketatu frontalaren ezarpena geldiaraz dezan, harik eta Europar Batasunak herrialde guztietarako etiketatu harmonizatu eta erkide bat onetsi arte.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Garapen Ekonomiko eta Enpresari-eko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Batzordean eztabaidatzeko:

Kontsumo Ministerioak iragarri du berehala ezarriko dela NutriScore nutrizio-etiketatu frontala, zeinaren aurka baitaude zientzialarien erkidegoaren parte bat, zehazki, eta gizartea oro har, bai eta Espainiako elikagai tradizionalen ekoizleak (Nafarroako familia-enpresa txikiak) ere.

Adibidez: paradoxikoa da nazioarteko zientzialarien erkidego osoaren ustez bihotzerako osasungarria den produktu batek –oliba-olio birjina estra– kalifikazio txarra izatea nutrizio-etiketatu horrekin eta, ondorioz, bere ontasunengatiko ospe-balioaren galera berreskuratzina izatea; beste horrenbeste gertatzen da gaztekin edo are fruta naturalen zuku ekologikoekin.

Eta harrigarria da, bestalde, osasungarriak ez diren kontsumo-ohiturak aldatzeko estrategia gisa

BEZa igo berri zaien produktuak orain ongi baloratutako izatea prozedura horrekin.

Inkoherentzia horiek –ezin jakin zer ondorio izanen dituzten– kezka eta protesta eragin dute kalitate ukazineko elikagaien ekoizleen artean, zeinek zuzenean pairatuko baitute kaltea, bereziki jatorri-deitura edo adierazpen geografiko babes-tua dutenek. Eta aditu, akademiko eta ikertzaile asko eta askok ere kezka hori bera adierazi dute berehala onetsiko delako mehatxuaren eta ekonomiarik nahiz osasunari begira dakartzan arriskuen aitzinean, berekin dakarren desinformazioaren aitzinean.

Nutrizio-etiketatu frontaleko sistema bat ezarri beharra dagoela onartuta ere, Europako herri askok errefusatu dute jada NutriScore etiketatua dieta mediterraneo aintzatetsian oinarritutako elikaduraren patroietarako sistema egoki gisa.

Gure ustez, Kontsumo Ministerioaren inposizio hori tokiz kanpo dago, ez baita ez une ez eredu egokia ere. Nafarroan ekoiztutako elikagaien aurkako eraso da, zeinak familia-negozio askoren ogibide baitira. Okerra da eredu desegoki batekin aurrea hartzea, Europako Batzordea Europar Batasuneko herrialde guztientzako prozedura erkide eta harmonizatu bat lantzen ari denean. Sistema oker hori orain inposatzeak nahasmendua baino ez luke eraginen kontsumitzaileen artean, eta ziurgabetasuna ekoizleen artean, aplikatu ahal izan dadin zientzialarien artean izan beharreko adostasuna ez izateaz gain.

Erabaki proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Espainiako Gobernuari eska diezaion NutriScore nutrizio-etiketatu frontalaren ezarpena geldiaraz dezan, harik eta Europar Batasunak herrialde guztietarako etiketatu harmonizatu eta erkide bat onetsi arte, ukitutako sektore guztien adostasunaren fruitu. Kontsumitzaileei nahasmendua eta elikagaien sektoreko Nafarroako enpresei ziurgabetasuna ekidin behar zaie.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du Europako foro eta organo eskudunetan defenda dezan nutrizio-etiketatu frontaleko Europako sistema harmonizatu bat

onesteia, balioan jarriko duena Nafarroako elikagaien nutrizio-kalitate handia eta osasungarria.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ekoizle, industria eta artisau guztiak babestu ditzan; bereziki, kalitate

berezituko elikagai nafar tradizionalak egiten dituztenak.

Iruñean, 2021eko ekainaren 8an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da nazioarteko garraioko 7,5 tona baino gehiagoko ibilgailu astunen trafikoa N-121-A errepidetik atera dezan, harik eta errepide hori 2+1 errepide bihurtzeko obrak bukatu arte.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita nazioarteko garraioko 7,5 tona baino gehiagoko ibilgailu astunen trafikoa N-121-A errepidetik atera dezan, harik eta errepide hori 2+1 errepide bihurtzeko obrak bukatu arte.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

18/2018 Errege lege-dekretuaren bidez, zenbait aldaketa sartu ziren Errepideei buruzko irailaren 29ko 37/2015 Legean. Hala dio zioen azalpenak:

“Aldaketa horietako lehenaren bidez, errepide jakin batzuetan, nahitaez desbideratu ahal izango dira ibilgailu astunak ordainpeko autobideetara, bide-segurtasun edo ingurumeneko arrazoiengatik. Errepide arruntetako bide-zati batzuetan dau-

den ezbehar-tasa handiak eta auto-ilara nabarmenek honelako arau bat ahalik eta azkarrena izateko beharrezana eta premia justifikatzen dute, segurtasun handiago baten legezko estaldura hobetzen baitu. Trafikoa desbideratzea nahitaezkoa izateak nahitaezko bihurtzen du bidesaria ordaintzea; hori dela eta, justifikatuta dago proposatzen den arau hau erabiltzea neurria babesten duen legezko estaldura hobetzeko”.

Hala, Errepideei buruzko irailaren 29ko 37/2015 Legearen 38. artikuluari 6. apartatu bat gehitu zitzaion, eduki honekin:

“6. Ibilgailu astunak direla eta, zirkulazioaren segurtasuna eta arintasuna bermatzeko edo ingurumen arrazoiengatik, trafikoa arautu, antolatu, kudeatu eta zaintzeko eskumena daukaten organoek errepideak edo bide-zati batzuk haien zirkulaziorako ixtea edo murrizketak ezartzea erabakitzen badute, ibilgailu horiei eskatu ahal izango zaie, ibilbide bera egiteko, bidesariak ordaindu beharra dakarren autobide batean sar daitezela (ibilbide osoa edo zati bat egin dezaten). Ibilgailu horiei aplikatzen diren bidesarietan hobariak izan daitezke, autobidea ustiatzeko baldintzak aldatzen dituen espedientean ezarritako eran. Administrazio interesdunek egindako hitzarmenen bidez adostu ahal izango da zer ekarpen egin behar duen administrazio bakoitzak hobari horretarako”.

Lege-aurreikuspen hori aplikatuta eman zen 757/2019 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, zeinaren bidez onetsi baita AP-68 autobideko Zambrana-Tutera tartean ibilgailu astun jakin batzuei bidesarietan hobariak aplikatzeko Estatuko Administrazio Orokorraren, Errioxako Gobernua eta “Autopista Vasco-Aragonesa, Concesionaria Anónima Unipersonal” enpresaren arteko hitzarmena.

Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren martxoaren 4ko 971/2021 epaiaren bidez ezetsi egin zen garraio-entresa batek 757/2021 Errege Dekretuaren aurka jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa; besteak beste, egon bazegoelako horri buruzko lege legeaurreikuspena, neurria justifikatuta zegoelako, aldi baterako zelako eta bide-segurtasuneko arrazoi nabarmenak zeudelako.

Bestalde, N-121-A errepideko obrak abiarazi zirenez geroztik, komunikazio-bide horrek ukitutako eremuko alkateek eta bizilagunek eskatu izan dute errepide horretatik joan-etorrian dabilen nazioarteko garraio ibilgailu astunak desbideratzea, aldi baterako baino ez bada ere, bide-segurtasuneko arrazoiengatik eta, obren kasu honetan, trafikoaren arintasunagatik.

Adierazi beharra dago ez dela lehen aldia bide horretan, obrek iraun bitartean, ibilgailu astunei mugak jartzea planteatzen dena. Nafarroako Parlamentuak, 2018ko apirilaren 26an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du behar diren mugak ezar diezazkion ibilgailu astunen zirkulazioari N-121-A errepidean, Belateko eta Almandozko tuneletako obrak egiten diren bitartean, oinarrizko jardute-printzipio gisa betiere harturik errepidearen erabiltzaileen segurtasuna bermatzea. Parlamentuaren erabaki horren ondorioz heldu zen 31/2018 Foru Agindua, maiatzaren 10ekoa, Garapen Ekonomikorako kontseilariak emana, behin-behineko mugak jartzen dizkiena salgaiak garraiatzeko zenbait ibilgailuri eta ibilgailu-multzori Nafarroako Foru Komunitateko N-121-A, NA-1210 eta N-121-B errepideetan ibiltzeko..

Frantziako estatuarekiko mugatik hurbilen dauden herriek ere (Bera, Lesaka, Sunbilla...) salatu izan dute ibilgailu astunen, tonaje handiko kamioien, metaketa, asteburuetan pilatu egiten direnak igandean, 22:00etan, Behobiako edo Biriatuko muga trafikoarentzat ireki arte zain, zirkulazioa debekatuta baitago Frantziako estatuan ordu horretara arte.

Arrêté du 22 décembre 2020 relatif aux interdictions complémentaires de circulation des véhicules de transport de marchandises pour l'année 2021 aginduaren bidez (2020ko abenduaren 22ko Agindua, 2021ean salgaiak garraiatzeko ibilgailuen zirkulaziorako debeku osagarri buruzkoa, <https://www.legifrance.gouv.fr/jorf/id/JORFTEXT000042845889> webgunean argitaratua), Frantzian zirkulatzeko murrizketen egutegia onetsi zen; oro har, baimendutako gehieneko masako 7,5 T baino gehiagoko ibilgailuei (errepidetik salgaiak garraia-

tzen dituztenei) eragiten die, ADR salgaiak garraiatzen dituztenak barne, ibilgailu espezializatuak eta nekazaritzako material eta ekipamenduen ibilgailuak salbu. Dekretu horrekin bat, indarrean jarraitzen dute 2015eko martxoaren 2ko Dekretuko 1. artikuluan ezarritako mugek, zeinen arabera debekatuta baitaude

“7,5 tonako gehieneko pisu baimendua baino pisu handiagoko ibilgailuen –errepidetik salgaiak garraiatzen dituztenen– zirkulazioa, ibilgailu espezializatuak eta nekazaritzako ibilgailu eta ekipoak salbu, dekretu honen II. eranskinean definitzen den moduan, debeku da sare osoan larunbatetan eta jai bezperetan, 22:00etatik hasita eta igande eta jaieguneko 22:00ak arte”-

Urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege-dekretuaren bidez onetsi zen Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu bategineko 18. artikulua trafikoaren arloko agintedunari esleitzen dio trafikoaren erregulazioaren arloan neurri bereziak hartzeko eskumena, zirkulazioaren segurtasuna eta arintasuna bermatzeko edo ingurumen arazoengatik. Azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Zirkulazio Erregelamendu Orokorreko besteak beste 37. eta 39. artikuluek zehazten dituzte neurri horietako batzuk eta arautzen dute neurri horiek hartzeko prozedura. Legezko aurreikuspen horiek betearaziz eta garrantuz, Segurtasun Departamentuko Trafiko Zuzendaritzaren 2021eko otsailaren 3ko Ebazpenaren bidez ezarri ziren Euskal Autonomia Erkidegoan 2021. urtean trafikoa erregulatzeko neurri bereziak, zenbait egun eta ordutan trafikoari zenbait muga jarrita.

Foru agindu honen xedea zen behin-behineko mugak jartzea salgaiak garraiatzeko zenbait ibilgailuri eta ibilgailu-multzori N-121-A, NA-1210 eta N-121-B errepideetan zirkulatzeko egun zehatz batzuetan, bide-segurtasuna eta zirkulazioaren arintasuna hobetzeko xedez.

Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren otsailaren 13ko 219/2018 epaiak finkatutako doktrinarekin bat, Nafarroak ere izanen luke trafikoa erregulatzeko neurri bereziak ezartzeko eskumena, Frantziako estatuak asteburuetan zirkulazioa ixteak Bidasoaldeko herrietan sortzen dituen ibilgailu-pilaketa eta -ilaren aitzinean, eta ibilgailu horiek aparkatzekoak ez diren eremu batzuetan aparkatu ahal izatea ezarri.

Hori guztia ikusirik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1) Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du, Nafarroako Foru Komu-

nitateak arlo horretan dituen eskumenak baliatuta eta N-121-A errepideko obrek dirauteino, errepide horretatik egun ibiltzen diren nazioarteko garraio-ko 7,5 tona baino gehiagoko ibilgailu astunen trafiko-a Gipuzkoako mugaraino AP-15 eta A-15 errepideetarantz desbideratzeko mekanismoak ezar ditzan.

2) Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hartu beharreko erabakiak har ditzan Estatuarekin hitzartze aldera Iruñetik Irurtzuna bitarte AP-15 autobidea erabilteagatik ibilgailu astunek ordaintzen duten bidesariaren hobariak izan lezakeen kostua bien artean finantzatzeko, kontuan hartuta N-121-A

errepidea nazioarteko trafiko ugari hartzen duen prestazio handiko errepide bat dela.

3) Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, eskumen horiek berak baliatuta eta kontuan hartuta Frantziako estatuak asteburuetan mugak jartzen dizkiela ibilgailu astunei bere lurralde osoan, hartu beharreko neurriak har ditzan ibilgailu astunei ordutegia mugatzeko, egun horietan Iruñetik Enderlatsara bitarte N-121-A errepideak zeharkatzen dituen herrietan ez dai- tezen gerta ehunka kamioiren pilaketak.

Iruñean, 2021eko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez bere babes instituzionala ematen baitio Kooperatiben 2021eko Nazioarteko Egunari.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere babes instituzionala ematen dio Kooperatiben 2021eko Nazioarteko Egunari, zeina Nazioarteko Kooperatiba Aliantzak eta Nazio Batuek ofizialki aldarrikatu baitute kooperatibak ezagutarazteko eta horien balioak sustatzeko xedez. Aurten, “Elkarrekin hobeto berreraiki” goiburupean ospatuko da.

2. Nafarroako Parlamentuak kooperatiba-ereduaren printzipioak eta balioak –persona erdigunean jartzen dute– nabarmendu nahi ditu (kudeaketa demokratiko eta parte-hartzailea, berdintasunaren sustapena, erantzukizun soziala eta ingurunearekiko konpromisoa), ekarpen handia dakartelako lurraldearen kohesioari, kalitatezko enplegu egonkorrari, enpresa-ehunaren sendotzeari, ekintzailtza kolektiboari eta gizarte-berrikuntzari begira.

3. Nafarroako Parlamentuak dio kooperatibismoa bera eta haren balioak ikusgai egiten eta bultzatzen laguntzeko konpromisoa duela, ongi asko ohartzen baita kooperatiba-ereduak Nafarroarentzat duen garrantziaz, foru erkidegoko ia udal guztietan eta jarduera-sektore guztietan (nekazaritzako elikagaiena, industria, merkataritza nahiz zerbitzuak) presentzia aktiboa duen neurrian, nazioarteko proiektzioa duten enpresetatik hasi eta ETE (enpresa txiki eta ertainak) nahiz mikroETE-etan buka, halako moduan non landa-inguruneeta-

ko despoblazioa gerazten laguntzen baitute eta kooperazio-ehun sendo bat sortzen baitute beren inguruan lurraldeko enpresen, profesionalen eta proiektuen artean. Parlamentuak orobat nabarmendu nahi du Nafarroa estatu nahiz Europa mailan ekonomia sozialeko erreferentziazko eskualde gisa kokatzen laguntzen duela kooperatibismoak.

4. Nafarroako Parlamentuaren ustez, beharrezkoa da Nafarroako Gobernuak neurriak hartzea kooperatibismoa Nafarroan garatzen laguntzeko, bai eta enpresa-eredu hori gizarte- nahiz ekonomia-arloko erabakigune guztietan bultzatzen laguntzeko ere, Nafarroaren ongizate nahiz garapen jasangarriko mesedegarria den aldetik.

5. Nafarroako Parlamentuak, ANEL-Nafarroako Ekonomia Sozialeko Enpresen Elkartearekin eta UCAN-Nafarroako Nekazaritzako Elikagai-kooperatiben Elkartearekin batera, munduko kooperatibismo osoari lagundu nahi dio, eta, hartara, “Elkarrekin hobeto berreraiki” goiburuekin bat egiten du, pertsonak erdigunean jartzen dituen errekupe-raziorako erresilientzia-, motibazio- nahiz elkartasun-mezu bat helarazten duen aldetik eta inguru- menarekiko errespetua erakusten duen aldetik. Halatan, bat egiten du Kooperatiben Nazioarteko Egunaren aldeko #Coopday traolarekin, eta kooperatiba-eredua aintzatesteko ekitaldi bat egiten du foru legebiltzarrean. (10-21/DEC-00036).

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak irmoki gaitzesten baititu Tenerifen izandako parrizidioa eta azken asteotako emakumeen erailketak, eta biktimen familiekiko eta adiskideekiko elkartasuna adierazten baitu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. “Nafarroako Parlamentuak irmoki gaitzesten ditu Tenerifen izandako parrizidioa eta azken asteotako emakumeen erailketak, eta biktimen familiekiko eta adiskideekiko elkartasuna adierazten du.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du emakumeen aurkako indarkeria oro arbuiatzen duela, bereziki indarkeria bikarioa (seme-alaben bitartez emakumeen aurka gauzatutakoa) eta biktimekiko konpromisoa adierazten du.

3. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du genero-indarkeria dagoela edota hura desagerraraztera bideratutako politika publikoen

balioa ukatzen duten jarrera politikoei aurre egiteko.

4. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du talde politiko guztiek eta erakunde guztiek baturik lanean segitzea indarkeria matxistaren aurkako borrokan, halatan beterik estatu-ituneko akordio eta neurriak, Haurrei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes integrala emateari buruzko Lege Organikoa, Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legea, bai eta talde politiko guztiek eta administrazio publikoek nork bere eskumenen esparruan hartutako konpromisoak ere”. (10-21/DEC-00037).

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordeari buruzkoa.*ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera, Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1.- Nafarroako Gobernuak noiz eratuko du Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordea?

2.- Nortzuk egonen dira batzordean?

3.- Kontuan hartuta pandemia-egoeran gaude la, Nafarroako Gazteriaren Institutuak aisialdiko zer jarduera eskainiko dizkie gazteei uda honetan?

Iruñean, 2021eko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, lurzoru urbanizazinetan jarduera eolikoak baimentzeari buruzkoa.*LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkezturiko galdera, lurzoru urbanizazinetan jarduera eolikoak baimentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Maiatzaren 14ko 112. NAO n argitaratu zen 45E/2021 Foru Agindua, maiatzaren 6koa, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak emana, zeinaren bidez luzatzen baita parke eolikoetarako baimena Nafarroan arautzen duen maiatzaren 8ko 56/2019 Foru Dekretuaren lehenengo xedapen indargabetzailearen 2. atalean ezarritako epea,

hau da, udalez gaindiko proiektu sektorial gisa onetsiak izanik, eskubide osoz egindako ordezpena dela-eta orain lurzoru urbanizaezinean jarduteko baimena behar duten parke eolikoak egin eta abian jartzeko ezarri zena.

– Udalez gaindiko proiektu sektorial gisa onetsiak izanik, eskubide osoz egindako ordezpena dela-eta orain lurzoru urbanizaezinean jarduteko baimena behar duten zer proiektuk baliatzen ahal dute 45E/2021 Foru Aginduan ezarritako luzapena? Nortzuk dira horien sustatzaileak eta zer herritan daude?

Iruñean, 2021eko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

Galdera, Osasun Departamentuaren etorkizuneko estrategia definitzeko egin diren lan-jardunaldiei buruzkoa.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko galdera, Osasun Departamentuaren etorkizuneko estrategia definitzeko egin diren lan-jardunaldiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Iragan asteko ostiral arratsaldean eta larunbat goizean, Osasun Departamentuko, Zuzendaritza Nagusiko eta erakunde autonomoetako zuzendaritzako langileek, lan-jardunaldi batzuk

egin zituzten, kontseilaria buru zela, El Toro ostatuan, Osasun Departamentuaren etorkizuneko estrategia zehazteko. Jardunaldi horiek MC Mutual mutua pribatuko profesionalak koordinatu dituzte.

Hiru txostengileetatik bi MC Mutualekoak dira: Rafael Manzanera (Zerbitzu Mediko eta Asistentzialen dibisioko zuzendariaren ondokoa) eta Diego Moya (osasun-laguntzaren kalitateko teknikaria).

Jardunaldien agendan honako hauek ageri dira:

– Kudeaketa gaitasuna eta malgutasuna.

– Ikerkuntza, berrikuntza eta garapena.

– Oinarrizko osasun-laguntza.

– Berrikuntza gaixoengan eta profesionalen inplikazioa.

Izenburu horien azpian osagarri oso interesgarriak dautza; esaterako, sistemaren finantzaketa edo kudeaketa klinikoko unitateak bultzatzea, berrikuntza osasun publikoan, Nafarroako Oinarrizko Osasun-laguntzari buruzko Plan Estrategikoa, lan-talde ez diren biztanleria-taldeetan osasuna sustatzeko programak, profesionalen fidelizazioa, eta abar.

Oso kezkarria da eginkizun hain eztabaidagarria duten entitate pribatuak (enpresa-mutuak)

erreferente izatea Osasun Departamentuaren egungo zuzendaritzarentzat.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

- Osasun Departamentuan zergatik ez die departamentuko langileei eurei agindu, arlo horretan adituak baitira, lan-jardunaldiak garatzea eta osasun-estrategia definitzea?

- Zer administrazio-prozedura baliatu da jardunaldi horiek Mutua MC enpresari kontratatze/esleitzeko? Zer baldintza-agiri baliatu da jar-

dunaldiak kontratatze eta nola egin da aukera ezberdinen arteko hautaketa, baldin eta aukera bat baino gehiago egon bazen?

- Zer justifikazio-txosten egin da jardunaldiak egitea onesteko?

- Zer kostu ekonomiko izan dute Mutua MC enpresak egindako jardunaldi horiek antolatzeak?

Iruñean, 2021eko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Galdera, parke eoliko eta forovoltaiko berriak paratzeari dagokionez Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak duen protokoloari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, parke eoliko eta forovoltaiko berriak paratzeari dagokionez Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak duen protokoloari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapide-tu ditzan eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak idatziz erantzun diezazkion:

Nafarroako Gobernuak ekainaren 8an argitaratu zuen prentsa-oharraren arabera (<https://www.navarra.es/eu/album/2021/06/08/landa-garapeneko-eta-ingurumeneko-departamentuak-protokolo-bat-sortu-du-energia-berriztagarrien-parkeak-har-edo-ez-ditzaketen-nekazaritzako-azalera-baloratze>), Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departa-

mentuak protokolo bat taxutu du, zehazte aldera nekazaritzako zer azalera har ditzaketen parke eoliko eta fotovoltaiko berriek.

Informazio horren arabera,

“Protokoloak lehorreko lurak eta ureztalurrak bereizten ditu. Lehorreko lurren kasuan, aurrena lurraren lurraren karakterizazio agrologikoa egin behar da, bai eta ukitutako azaleraren potentzial produktiboarena ere. Halatan, I., II. eta III. mailek, baldin eta horien potentzial produktiboa errendimenduko 2,2 Tn/Ha-tik goitikoa bada, balio produktibo handiko lurzoruen izaera izanen dute automatikoki. Hau da, balio produktibo txikiko lehorreko lurak edo errendimendu horren azpiko indizea dutenenetan soilik ezartzen ahalko liraterke energia berriztagarriak.

Ureztalurren kasuan, Ureztatzeen Foru Plana da babes-tresna nagusia; halatan, hor sartzen den azalera orok izanen du lur babestuaren izaera, salbu eta IV. maila agrologikoko lurak (laborerako muga handiekiko lurak), non bai ezartzen ahalko baitira gisa horretako instalazioak. Eta badira lur-mota horiek babesten dituzten beste bi lege ere. Batetik, Nekazaritzako Azpiegiturei buruzko mar-txoaren 7ko 1/2002 Foru Legeak 15 urtez babes-ten ditu azalera, ureztaketa abiatzen denetik aitzina, baldin eta berrantolaketaren arloko jarduketaren bat edo ureztaketa abiatzeko jarduke-taren bat egin bada bertan. Eta bestetik, Lurralde-aren Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu batekina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, lurralde antolamenduko tresnei dagokienez. Horren arabe-

ra, ez da proiektu fotovoltaiko handirik baimentzen produktibitate handiko lurzoru emankorretan.

Departamentuaren arduradunek orobat gogorazi dute debekatuta dagoela parke fotovoltaikoak paratzea laborerako balio handiko lurretan, 64/2006 Foru Aginduan ezarritakoari jarraikiz. Foru agindu horrek orobat ezartzen du debeku dela eguzki-instalazioak paratzea naturgune babestuetan, babespeko lurzoru urbanizaezinean, abelbideetan, Donejakue Bidean, aztarnategi arkeologikoetan, kultura-balioa duten gainerako lurretan eta egina edo aurreikusita dauden interes orokorreko azpiegituretan. Eta ezin izanena da paratu landare-estalkiak lehentasuneko eta kontserbaziorako balio handiko habitatak dituen eremurik hartzen badu (92/43/EEE Zuzentaraua), ez eta Nafarroako Flora Mehatxatuaren Katalogoan edo babeserako beste agiri batzuetan aipatzen diren babespeko flora duen lekuneetan ere”.

Hori guztia ikusita, honako galdera hauek aurkezten dira, idatziz erantzun dakien:

1. Departamentuak onetsitako protokoloaren arabera, ezin zitzaizen baimenik eman protokoloa-

ren arabera gisa horretako energia-sorkuntzako parkeak hartzerik ez duten nekazaritza-azalerak ukitzen dituztelako?

2. Departamentuak ureztalur diren lurrak edo azalerak ukitzen dituzten parke eoliko eta fotovoltaiko berrien proiektuen baimenen aurka informaturiko al du? Gobernuan une honetan izapidetzen ari diren zer proiekturi eraginen lioke ureztalurren gaineko muga horrek?

3. Departamentuaren arabera, Gobernuan une honetan izapidetzen ari diren parke eoliko eta fotovoltaiko berrien zer proiekturi eraginen lioke, 64/2006 Foru Aginduan ezarritakoa aplikatuz, parke fotovoltaikoak paratzeko debekuak?

4. Protokolo horrek Nafarroako hainbat udaletako mendietan paratu nahi diren parke eolikoei eraginen al lieke? Ezezkoan, Departamentuak ba al du beste protokoloen bat onesteko asmorik, gisa horretako energia-sorkuntzako parkeak titulartasun publikoko mendietan paratu nahi diren kasurako?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 19an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, desgaitasuna duten 3tik 6 urtera bitarteko seme-alabak dauzkaten Nafarroako familiei ematen zaien arretari buruzkoa.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkezturiko galdera, desgaitasuna duten 3tik 6 urtera bitarteko seme-alabak dauzkaten Nafarroako familiei ematen zaien arretari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno Gurpegui jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Zure ustez, arreta nahikoa eta egokia jasotzen ari al dira eskoletan desgaitasuna duten 3tik 6 urtera bitarteko seme-alabak dauzkaten Nafarroako familiak?

– Hala bada, nola azaltzen duzu Nafarroako elkartegintzako entitateak 200 familiatik gora artatzen aritzea 3tik 6 urtera bitarteko haurrentzako arreta goiztiarreko dauzkaten programetan?

– Nola baloratzen duzu elkarte horietan zenbait familia itxarote-zerrendan egotea baliabide falta dela-eta ezin dituztelako artatu?

Iruñean, 2021ko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

Galdera, Iruñerriko Mankomunitateari COVID-19a dela-eta Estatuak garraio publikorako emandako dirulaguntzari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Iruñerriko Mankomunitateari COVID-19a dela-eta Estatuak garraio publikorako emandako dirulaguntzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2021eko ekainaren 9ko 137. EAOn, COVID-19aren ondorioz garraio publikorako emandako dirulaguntzen zerrenda argitaratu zen. Hartan, Iruñerriko Mankomunitateari 7.726.049,92 euroko dirulaguntza eman zaio (diru-sarreraren % 40). Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

Lehena. Nafarroako Gobernuak eskaerarik egin al zuen? Zein?

Bigarrena. Ezezkoan, zergatik?

Hirugarrena. Ba al dakizue Nafarroako Foru Komunitatean beste eskaerarik egon ote zen? Zein?

Laugarrena. Ezezkoan, ba al dakizue zergatik ez zen eskaerarik egin?

Iruñean, 2021eko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Barañaingo Auditorioaren funtzionamenduari eta kultur programazioari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Barañaingo Auditorioaren funtzionamenduari eta kultur programazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean agitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2020ko urtarrilaren 16an, honako galdera idatzi hau egin nion Nafarroako Gobernuari:

“Parlamentari naizen honek honako hau jakin nahi dut Barañaingo auditorioari eta haren funtzionamenduari eta programazio kulturalari dagokienez:

– Zertan da Nafarroako Gobernuaren lankidetzatza, auditorioaren funtzionamenduari dagokionez? Zer ekimen eta jarduketa abiaraziko ditu ildo horretan?

2020ko otsailaren 14an, honako erantzun hau jaso nuen : “Kultura eta Kirol Departamentua zain dago, hurrengo bilera batean jakin arte ea Barañaingo Auditorioa Fundazioak edota Barañaingo Udalak zer erabaki hartzen duten kultur zuzkidura horri dagokionez, abiarazi beharreko ekimenak eta jarduketak planteatzeko”.

Gauzak horrela, honako hau jakin nahi dut:

Lehen. Departamentuak eta Fundazioak izandako bileren datak, bilera horietako bakoitzean parte hartu zutenen zerrendarekin.

Bigarrena. Bilera horietako bakoitzean jorratu ziren gaien zerrenda.

Hirugarrena. Hartutako erabakien xehetasunak.

Iruñean, 2021eko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren entseguetarako egoitza aldatzeko arrazoiei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren entseguetarako egoitza aldatzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Parlamentari naizen honek honako hau jakin nahi dut Baluarte Fundazioaren eta Barañaingo Auditorioa Fundazioaren arteko hitzarmen berriari buruz, zeinaren ondorioz Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren entseguak Atarrabiako Kultur Etxean egin ordez Barañaingo Auditorioan egingen baitira:

– Lehena. Zerk justifikatzen du aldaketa hori?

– Bigarrena. Atarrabiako Udalarari zergatik ez zaio informaziorik eman Barañaingo Udalarekiko eta Barañaingo Auditorioa Fundazioarekiko negoziatio-prozesuari buruz?

– Hirugarrena. Zer onura ekonomiko ekarriko du aldaketa honek?

Iruñean, 2021eko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Mayumana taldearen emankizunaren aurretik gertatutako istiluei eta Foruzaingoak izandako esku-hartzei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera Mayumana taldearen emankizunaren aurretik gertatutako istiluei eta Foruzaingoak izandako esku-hartzei buruz-

koa zen, eta 2021eko apirilaren 20ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/POR-00185).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

